

KANALAK

Atal honetan, enpresa merkatuko segmentu ezberdinekin nola komunikatzen den zehazten da, hau da, nola egingo dugun segmentu horiengana iritsi eta gure balio proposamena aurkezteko.

Enpresaren salmentak webgunearen bidez egingo dira. Bertan, produktuaren diseinua pertsonalizatu ahalko da, baita prezioa eta funtzionamendua ikusi ere.

Alde batetik, **zuzeneko kanala** izango da, salmentak internet bidez burutuko baitira eta denda fisikoan. Bestalde, **kanala zeharkakoa** izango da ere, kanpoko beste enpresa



handietan salduko baita gure produktua. Adibidez, MediaMarkt dendari gure markako produktua eskainiko diogu bertan salgai jartzeko. Salmenten diru kopuruaren %18,9a komisio bezala geratuko dira. Horrela gure produktua bezero gehiagorengana iristeko aukera izango du.

Hala ere, hasieran enpresa gizartera aurkezteko, marketing-kanpaina egingo dugu, bertan, telebistako publizitatea, youtuber eta influencerren promozioak, autobus geltokietako posterrak eta irratiko iragarkiak nola egin finkatuko dugu, marketing plan zehaztu bat eginez, EXPIEY enpresarekin batera. Horrela, gure produktuak zein onura ekar ditzan azalduko diegu bezeroei, eta hainbat ikerketa aurkeztuko dizkiegu (Erosleen iritzi pertsonalak, erlojuaren indarguneak, ekar ditzakeen onurak...)



Kolaborazio hauek hurrengo enpresekin eramango ditugu aurrera:

- **Telebistako publizitatea:** Mediaset Españarekin, iragarki bidez. Iragarki emotibo bat izango da, bertan lurraren osasunarekin jokatu dugu eta bertako ekologia-arazoari irtenbide positibo bat emateko SunWatch-a aurkeztuko dugu.
- **Influencer/youtuberren promozioak:** Djmario, Marta Díaz, TheGrefg eta Ibai Llanos, history-ak igo instagramera eta youtubeko bideoan aipatuko gaituzte.
- **Autobus geltokietako posterrak:** Samsa estudio-Lurraldebus

Diseinu baten bidez, grafikoki gure produktua ongi isladatzen duen diseinu bat.

- **Irratia:** Los 40 principales, Cadena 100

Abestien artean gure produktuaren inguruan hitz egingo dute.

Kolaborazio hauekin, gure zerbitzuak bezeroei helaraziko diegu, haien atentzioa deituz.